

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### GORBEIALDEKO KUADRILLA

**Sustapen Ekonomikoko teknikariaren plaza baterako oinarri espezifikoen II. eranskinean akatsak zuzentzea. Horren bidez, 2022ko abenduaren 21eko 146 zenbakidun ALHAOn argitaratutako 2022/3467 iragarkia zuzentzen da**

146 zenbakia dun ALHAOn, 2022ko abenduaren 21ean, asteazkenez, honakoak argitaratu ziren: lehiaketa sistemaren bidez sustapen ekonomikoko teknikariaren lanpostu bat betetzeko deialdia, eta deialdi horren oinarri orokorrak eta espezifikoak; 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespe- nezko deialdiaren esparruan. Presidentziaren 2022ko abenduaren 13ko ebazpen bidez onartu zen azken deialdi hori.

Oinarriak argitaratu ondoren, ondorengo akatsa aurkitu da:

2.3 puntuan, merituen baremoaren I. eranskinean, ekonomia sustapenerako teknikariaren plazaren esperientzia espezifikoaren balorazioari buruzkoan, honakoa dioen lekuan:

“Administrazio bereziko eskalaren azpieskala teknikoan (goi-maila) edo 1 azpitaldeko A taldeko 1 azpitaldeko gerentzia-letraduen kategorian egindako zerbitzuengatik, edo deialdia egin duen administrazioan titulazio bera eskatzen duten lanpostuetan lan-kontratuko langile gisa egindako zerbitzuengatik, 0,00609 puntu lan egindako egun bakoitzeko.”

Honakoa esan behar du:

“Administrazio bereziaren eskalako azpieskala teknikoan (goi-maila) edo sustapen ekonomi- koko teknikarien kategorian (A taldea, 1 azpitaldea), zeinetan lan egiteko A taldeko 1 azpitaldeko titulazio propioa eskatzen den, edo deialdia egin duen administrazioan titulazio bera eskatzen duten lanpostuetan lan-kontratuko langile gisa egindako zerbitzuengatik, 0,00609 puntu lan egindako egun bakoitzeko.”

Denek jakin dezaten ematen da argitara.

Murgian, 2023ko otsailaren 20an

*Presidente*

*AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA*